

# Asisko gutuna

2014ko maiatza. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

67. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Jainkoaren begiz munduari begiratzeko gai bagina, mundua eta inguruan ditugun pertsonak Jainkoaren bihotzez ikuskatzekoak. Horren bila gabilta gure frantziskotar espiritualitatearen bilaketan: Jesusengan, Frantziskorengan eta hainbatengan ikusten dugun bizimodu eta begiratzeko erak geureganatu nahian. Eta asko ikasi beharrean gaude oraindik.

## Gogoetarako gaia

### *Oinutsik sartu sufritzen duenaren lur sakratuan*

Mugatasunari eta gaixotasunari nola aurre egin azaltzeko hitzaldi/solasaldi batean, hizlariak, medikua bera, esaten zuen ez dagoela eri eta gaixorik, pertsonak baizik. Gaixotasuna eta minari aurre egitean, erraz erortzen garela pertsona kontuan ez hartzeko errorean, hau da, izate osoaren ordeztate batekin gelditzen garela. Eta jarraitzen zuen esanez, gauza ez dela honelako edo halako atalean espezialista izatea, pertsonak tratatzen espezialista izatea baizik.

Gauza bera gertatzen zaigu solidaritatearen arloan: erraz erortzen gara egoerak eta premiak ikusi eta, pertsonari begiratu gabe, beroiek konpondu nahi izateko errorean. Gustukoa dugu efikazia, irtenbideak bilatzea. Izaera sozialeko gure erakunde eta instituzioetan ere markatuta daukagu egintzarako protokoloak. Arrisku serioa dugu ez konturatzeko, efektibo den hura ia beti afektibo denetik pasatzen dela.

Bestela geure burua pertsonen gainetik jartzea dugu arriskua: gu gara dakigunak, laguntzen dugunak, sendatzen dugunak eta daukagunak. Eta horrela haiek gutxiago direnak, ezgaiak, mendean direnak ... sentiarazten ditugu.

Frantziskoren esperientzia alderantzizkoa da, hain zuzen: ezer konpondu aurretik bat egiten da legendunarekin, behartsuarekin, sufritzen duenarekin, eta besarkatu egiten du.

Pertsonarengan bizi duena baino gehiago ikusteak ahalbidea ematen digu gu geu haren mailan jartzeko, horrela harekin enpatian jarritzeko, behar duen eta guk eman ahal diogun laguntza emanez, hura menpean hartu eta umiliatu gabe, hura aintzat hartzen dugula eta elkar aintzat hartzen dugula.

Elizaren hasierako goratarre batek esaten du, Jainkoak utzi egin ziola Jainko izateari, gutako bat bihurtzeko, azkeneko egin arte.

Gehiago begiratu behar genioke Jesusi, haren pertsonetik tratutik ikasteko, menpean inor hartu gabe, inposatu gabe; baizik eta mahaian beste bat bezala eseriz jende gogaikarri, arbuiatu, bekatari... artean, are gu geu oinak garbitzera jaikiz.

Ikas dezagun oinutsik sartzen sufritzen duenaren lur sakratuan.

## Ebanjelioko pasartea: Mk 2, 13-17

Jesus berriro aintzira aldera ateratzen zen. Jende guztia berarengana zetorren eta irakasten hasi zitzairen. Bidez zihoala, Lebi Alfeorena ikusi zuen zerga biltzeko mahaian eserita, eta esan zion: "Jarraitu niri". Lebi zutitu eta jarraitu egin zion.

Geroago, Lebiren etxean zegoen Jesus mahaian; bazen beste zergalari eta bekatari asko ere Jesusekin eta honen ikasleekin mahaian; izan ere, asko zihoazkion ondoren. Fariseu lege-maisu batzuek, bekatari eta zergalariekin jaten ari zela ikusirik, esan zieten ikasleei: "Nolatan jaten du zergalari eta bekatariekin?" Jesusek entzun eta esan zien: "Ez dute osasundunek behar sendagilea, gaixoek baizik; ez naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatarietara baizik".

## Frantziskotar espiritualtasuna

“Saia bitez anaia guztiak Jesu Kristo gure Jaunaren apaltasunari eta pobretasunari jarraitzen. Eta poz hartu behar dute, jende baxu eta mespretxatuarekin, behartsu, ahul, gaixo, legendun eta bide-bazterretako eskaleekin batera bizi izateaz” (1Er 9,1-2).

Jesusen urratsei jarraituz, Frantziskok pobreekin egonez pobre izatea hautatu zuen. Jende xehe eta xumearekin nahi izan zuen bizitza egin, haien alde eta ondoan egon, besterik gabe, senide gisa konpainian. Jesus Jaunari jarraituz, gertutasun maitekor eta gupidatsua izaten ikasi zuen. Bere kezka ez da anaiei zer egin behar duten esatea, baizik eta jakin dezatela haiekin bizitza egiten eta partekatzen, haiei entzuten lasai eta soseguz haiekin egonez, horretarako munduko denbora guztia eta bihotzeko gune zabala izanik. Frantziskorentzat behartsua, eskalea, lepraduna ... ez da mespretxatua, ahula, baztertua, senidea baizik. Era horretan, eska diezaieke bere anaiei, poztu daitezela haiekin bizitza eginez. Frantziskok elkartu egiten ditu Jesusen pobretasunari jarraitzea eta behartsu eta ezinduekin pozik egotea, kontziente izanez hori egin ahalko dugula Jaunaren eskuari helduz eta haren espirituak sostengatuak izanik.

## Otoitza

Gauzaren bat egin ahal ba dut, gaur,  
zerbitzuren bat egin ahal badut,  
zerbait ondo esana mintzo badezaket,  
esan, Jauna, niri nola egin.

Zoritxarrekoen bati laguntza eman ahal badiot,  
haren zama arindu badezaket,  
alaitasun gehiago barreia badezaket,  
esan, Jauna, niri nola egin.

Giza hutsegiteren bat konpon badezaket,  
hurkoari indarra eman ahal badiot,  
hura kantuz alai badezaket,  
esan, Jauna, niri nola egin.

Grenville Kleiser

## Gutuneko azken hitzak

“Pertsona bat zaintzea Jainkoa bera zaintzea bezala da.” (Joan Josep Tamburini)

2014ko maiatzeko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Jn 3, 31-36	8 Jn 6,44-51	15 Jn 13, 16-20	22 Jn 15, 9-11	29 Jn 16, 16-20
2 Jn 6,1-15	9 Jn 6,52-59	16 Jn 14, 1-6	23 Jn 15, 12-17	30 Jn 16, 20-23a
3.Jn 14, 6-14	10 Jn 6, 60-69	17 Jn 14,7-14	24 Jn 15, 18-21	31 Lk 1,39-56
4 Lk 24,13-35	11 Jn 10, 1-10	18 Jn 14, 1-12	25 Jn 14, 15-21	
5 Jn 6, 22-29	12 Jn 10, 11-18	19 Jn 14, 21-26	26 Jn 15, 26-16, 4a	
6 Jn 6, 30-35	13 Jn 10,22-30	20 Jn 14, 27-31a	27 Jn 16, 5-11	
7 Jn 6, 35-40	14 Jn 15,9-17	21 Jn 15,1-8	28 Jn 16,12-15	

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Maiatzeko otoitza 29an izango da